

**EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAREN ZERBITZURA DAGOEN
“ZIBERSEGURTASUNeko GORABEHEREI ERANTZUTEKO ARLOKO ARDURADUNAREN”
LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRIAK**

(deialdiaren kodea: 202503cyberzaintza)

LEHENENGOA.- - ARAU OROKORRAK

- 1.1.** EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIA euskal sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzeko eta koordinatzeko Eusko Jaurlaritzaren agentzia autonomikoa da.
- 1.2.** Oinarri hauen xedea da gorabeherei erantzuteko arloko arduradunaren lanpostua betetzeko egingo den hautaketa-prozesuaren arau erregulatzailerak ezartzea.
- 1.3.** Hautaketa-prozesuaren helburua da, deialdi ireki baten bidez, oinarri hauetan arautzen diren hautaketa-prozesuko faseak gaititu ondoren puntuaziorik onena lortzen duen pertsona hautatzea, prozesuan onartutako hautagaien artean.
- 1.4.** Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzenbide pribatuko ente publikoa denez, nortasun juridiko propioa duena, eta bere jardura ordenamendu juridiko pribatura egokitzen duenez, bere helburuak eta autonomia organiko eta funtzionala betetzeko jarduteko gaitasun osoarekin, bere langile propioen kontratazioa lan-zuzenbidearen araubidearen mende jartzen du, eta hautaketa-prozesua deialdi publikoaren bidez garatzen da, enplegu publikora sartzeko printzipio konstituzionalen arabera eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritik (10. artikulua).
- 1.5.** Hautaketa-prozesua amaitutakoan, hautatutako hautagaiaren kontratazioa formalizatuko du EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK.

BIGARRENA. - LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK

2.1. Prozesuaren helburua da arduradun-lanpostua betetzeko lan-kontratu mugagabea sinatzea, lanaldiaren % 100ean eta EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK izaera orokorrarekin ezartzen duen lan-ordutegian, betiere lanpostuaren izaera eta premiak kontuan hartuta.

Soldata lan-kontratuko langileen 14 mailaren baliokidea izango da, urtean 58.026,10€ gordinetara.

2.2. Gorabeherei erantzuteko arloko arduradunaren lanpostua EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAKO Eragiketen eta Erantzun Taldearen Zuzendaritzan sartzen da, eta eginkizun hauek betetzen ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan zibersegurtasun-gorabeherei erantzuteko gaitasun teknikoa planifikatzea, gauzatzea, jarraipena egitea eta hobetzea, euskal sektore publikoko erakundeei laguntzeko.
- Zibersegurtasun-gorabeherei erantzuteko prozedura orokorrak garatzea.
- Auzitegi-analisirako prozedura espezifikoak garatzea: ebidentziak eskuratzea eta aztertzea, hala nola memoriaren iraultak, sareko trafikoaren kapturak, logak, disko gogorren irudiak, erregistroaren esportazioak, etab.

- Euskadiko sektore publikoko entitateak zibersegurtasun-gorabehereri erantzuteko koordinatzea eta erantzutea eta laguntzea, *in situ*, beharrezkoa bada, garatutako prozedura orokorren eta espezifikoaren arabera.
- Kontzeptu-probak egitea eta zibersegurtasun-gorabeheren kudeaketa optimizatzea ahalbidetzen duten ekintzak gauzatzea, gaitasunaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetuz.
- Zibersegurtasun-gorabeherak kudeatzeko simulakroak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzea, halakoak gertatzen direnean erantzun efizienteagoa emateko.
- Euskadiko sektore publikoko entitateetako teknikariek zibersegurtasun-gorabehereri erantzuteko dituzten gaitasunak hobetzen laguntzeko prestakuntza-ekintzak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzea.
- Zibersegurtasunarekin, ziberkrimenaren jazarpenarekin, Euskadiko azpiegitura sentikorren babesarekin eta abarrekin zerikusia duten Ertzaintzaren arloetako langileen gaitasunak hobetzen lagunduko duten prestakuntza-ekintzak planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- Bere lan-esparruari berariaz eragiten dioten ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozesuetan parte hartzea, oinarrien idazketan eta eskaintzen eta hornitzaileen ebaluazioan esku hartuz, etab.
- Agentziaren ordezkari gisa, esku-hartze, ekitaldi, lantalde eta foroetan parte hartzea, bere jarduera-eremuari dagozkion publiko, organo eta erakundeen aurrean.
- Zuzendaritza Nagusiak eta Eragiketen eta Erantzun Taldearen Zuzendaritzak ezartzen dituzten gidalerroei eta lehentasunei jarraitzea.
- Beste egiteko batzuk: Antzeko izaera eta kualifikazioa duten ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren eginkizun guztiak egitea.

HIRUGARRENA.- ESKAKIZUNAK.

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak oinarri hauei erantsitako eskabide normalizatua aurkeztuz eskatu beharko dute, eta beren sinaduraren bidez berariaz adierazi beharko dute deialdian eskatzen diren eskakizun guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Nahitaezko eskakizunak dira, eta hautaketa-prozesu osoan mantendu beharko dira kontratua formalizatu arte:

a) Eskakizun orokorrak

1. Gutxienez 16 urte izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gaingitzea.
2. Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen aplikazioaren ondorioz, langileen zirkulazio askea aplikagarri zaion estaturen batekoa izatea.
3. Epaia edo diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikoren edo sektore publikoko erakunde edo enpresaren zerbitzutik baztertuta, etenda edo desgaituta ez egotea, eta funtzio edo kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
4. Titulazioa: Gutxienezko eskakizun espezifikoetan adierazitako titulazioren bat edukitzea edo titulu hori emateko eskubideak ordainduta izatea.

5. Lanpostuaren eginkizunak betetzearekin bateraezina den osasun-arazorik ez izatea. EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK zehaztutako Medikuz Zerbitzuak ziurtatu beharko du hori, kontratazioa formalizatu aurre-aurretik.

Desgaitasuna duten pertsonak gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira hautaprobetan, betiere euren mugak ez badira bateraezinak deitutako lanpostuari dagozkion eginkizunak edo zereginak normaltasunez betetzearekin.

Hautaketa-faseetan jarduteko beharrezkoak diren denbora eta bitartekoak egokituko dira, baldin eta desgaitasunen bat duten pertsona interesdunek hala adierazten badute parte hartzeko eskabidean.

b) Gutxieneko eskakizun espezifikoak

- Prestakuntza: **Goi-mailako teknikariaren titulazioa edo unibertsitateko gradu-titulua eta/edo titulazio baliokideak.**
- Indarrean dagoen **gidabaimena. B-2 kategoria edo klasea**, gidatzeko gaitasuna eta ibilgailu propioa.
- **Gutxienez 5 urteko esperientzia** antzeko eginkizunak dituen lanpostuan. Egiaztatzeko, lan-bizitza eguneratua eta curriculum-memoria¹ xehatua aurkeztuko dira, oinarri espezifikoaren baremazio-irizpideen eta lanpostuaren eginkizunen arabera.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko nahitaezkoak diren aurreko eskakizunak betetzen direla egiaztatzen ez duten eskabideak ez dira onartuko.

LAUGARRENA. - ESKABIDEAK

4.1. Prozesuan parte hartu nahi dutenek **eskabidean** adierazi beharko dute –oinarri hauei **ERANSKIN** gisa erantsita doa eredu—. Eskabide horretan eskatutako eta balora daitezkeen prestakuntzari eta esperientziari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta horiek egiaztatzen dituen **dokumentazio erantsia** sartu behar dira, ereduaren arabera.

Eskabidea eta erantsitako dokumentazioa **helbide elektroniko** honetara bidaliko dira: 202503cyberzaintza@qualisconsultores.es

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK beretzat gordetzen du aurkeztutako dokumentazioaren/informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko eskubidea. Izangaiek egiazkoa ez den informazioa emanez gero, hautaketa-prozesutik kanpo gera daitezke.

4.2. Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dute eskatzen den dokumentazioa 202503cyberzaintza@qualisconsultores.es helbidera (bidali nahi den mezua 30 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidaliko dira horietako bakoitzean onartutako gehieneko tamaina gainditu gabe).

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko azaroaren 2an amaituko da, 23:59an.

¹ Curriculum-memoria azalpen-dokumentu bat da, hautagaiaren jardura akademikoan eta lan-jardueran garrantzitsuak diren elementu guztiak zehatz-mehatz azaltzen dituen. Izangaiek organo ebaluatzailearen aurrean balioan jarri nahi dituen elementu guztiak argi eta garbi identifikatuta, datatuta eta deskribatuta jaso behar ditu.

Qualis Consultores de Talento SL enpresa laguntzaileak eskaera hartu izanaren erantzun bat igorriko du eskabidea bidali eta hurrengo 48 ordu baliodunetan, posta elektronikoz, izangai bakoitzari eskaera-kode desberdin bat emanez. Kode hori erabiliko da hautaketa-prozesuan zehar egiten diren argitalpenetan, izangaien identitatea babesteko.

4.3. Hautaketa-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK hautaketa-prozesuaren helbururako datu pertsonalak tratatzeko baimena ematea ekarriko du.

Eskabidea aurkeztean, izangaiek espresuki adieraziko dute ados daudela hautaketa-prozesuaren helbururako datu pertsonalak tratatzearekin.

4.4. Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta baldintzarik gabe onartzen direla deialdi honen oinarri erregulatzailerak.

BOSGARRENA. - ONARPENA.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK ETA QUALIS CONSULTORES DE TALENTOK **onartutako eta baztertutako** izangaien **zerrenda** onetsiko dute, eta hautagaiei jakinaraziko zaie emandako helbide elektronikoaren bidez eta www.qualisconsultores.es webgunean.

Nolanahi ere, informazio gisa, mezu elektroniko bat bidaliko da izangaiek eskabidean emandako helbide elektronikora, prozesuan onartua izan dela edo, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia zein den jakinarazteko.

Hautaketa-prozesuan ez dira onartuko prozesuan parte hartzeko oinarrietan adierazitako eskakizun orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten izangaia.

5.2. Onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartzen duen ebazpenean, hautaketa-organoaren osaera adieraziko da.

SEIGARRENA. - HAUTAKETA-ORGANOA.

6.1. Horretarako, hautaketa-organo bat eratuko da, eta organo hori izendatzean bermatuko da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak errespetatuta.

6.2. Hautaketa-organoak oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebatziko ditu, eta prozesuaren fase bakoitza behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarritik. Era berean, fase bakoitzeko emaitzak balidatuko ditu, eta sortzen diren gorabehera guztiak ebatziko ditu.

Hautaketa-organoa osatuko duten kideen kopurua bakoitia izango da, eta horien artean izango dira: lehendakari bat eta bokal gisa jarduten duten kideak. Kide gisa jarduten duten pertsonetako batek idazkari-lanak egin ahal izango ditu. Hautaketa-organoko kideek ordezkariak izango dituzte.

Izendapena egiterakoan, kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatu beharko dira, eta beti inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jardungo dute.

6.3. Hautaketa Organoak egokitzen jotzen dituen aholkulariak edo enpresa espezializatuak sartu ahal izango ditu bere lanetan, prozesuaren fase desberdinetako probak egiteko.

6.4. Organo horren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira.

ZAZPIGARRENA. - PUBLIZITATEA

Oro har, deialdiaren eta hautaketa-prozesuen iragarkiak, probetarako deialdiak, emaitzak argitaratzea etab. komunikatzeko, bitarteko hauek erabiliko dira:

- Webgunea: www.cyberzaintza.eus
- Webgunea: www.qualisconsultores.es

Interesdun guztien eskura jartzen da helbide elektroniko hau, argitaratutako oinarrietatik ondorioztatzen diren kontsulta eta argibide guztiak bideratu ahal izateko eta hautaketa-prozesu osoan zehar egoki diren alegazioak egiteko:

202503cyberzaintza@qualisconsultores.es

ZORTZIGARRENA. - HAUTAKETA-PROZESUAREN DISEINUA ETA BALORAZIOA.

8.1. Hautaketa-prozesuaren faseak, fase bakoitzaren gehieneko puntuazioak eta aplikatu beharreko ebaluazio-bitartekoak hauek izango dira:

1. FASEA: SARTZEKO GUTXIENEO ESKAKIZUNAK BETETZEA.

- **Prestakuntza:** Goi-mailako teknikariaren titulazioa edo unibertsitateko gradu-titulua eta/edo titulazio baliokideak.
- Indarrean dagoen **gidabaimena**. B-2 kategoria edo klasea, eta gidatzeko gaitasuna.
- Gutxienez 5 urteko **esperientzia** antzeko eginkizunak dituen lanpostuan, oinarrietan aurreikusitako moduan egiazta daitekeena.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (38 puntu gehienez)

A) Prestakuntza (12 puntu gehienez). Titulu akademiko hauetakoren bat izatea baloratuko da:

- Informatikaren edo telekomunikazioen arloko diplomatura/lizentzia/unibertsitate-titulazioa: 6 puntu.
- Zibersegurtasuneko master ofizialak: 3 puntu (6 puntu gehienez).

B) Hizkuntzak (4 puntu gehienez):

- Titulazio ofizialarekin egiaztatu beharko da, prozesuan parte hartzeko eskaeraren eskabidearekin batera.
- Ez da hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egingo.
- Honela baloratuko da:

B.1) Euskara (2 puntu gehienez)

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) B2 maila: 1 puntu.
- EEMBren C1 maila: 2 puntu.

B.2) Ingelesa (2 puntu gehienez)

- EEMBren B2 maila: 1 puntu.
- EEMBren C1 maila: 2 puntu.

Bi titulazio ofizial edo gehiago izanez gero, maila altuena bakarrik baloratuko da.

C) Ziurtagiri teknikoak (10 puntu gehienez)

- Gorabeherei erantzuna ematearekin lotutako ikastaroak: 0,01 puntu orduko (4 puntu gehienez).
- Gorabeherei erantzuna ematearekin lotutako indarreko ziurtagiriak: 2 ziurtapeneko (2 puntu gehienez).
- Proiektuen kudeaketako ziurtagiriak (PMP): 0,01 puntu orduko (4 puntu gehienez).

Aurreko merezimenduak egiaztatzeko, dagokion ziurtagiria edo titulua aurkeztu beharko da, prozesuan parte hartzeko eskabideari erantsita.

D) Lan-esperientzia (12 puntu).

Deialdiko lanpostuarekin zerikusia duten zereginetako eta eginkizunetako esperientzia baloratuko da, eta **0,1 puntu** emango dira egiaztatutako esperientziaren **hilabete oso bakoitzeko** (gutxieneko baldintza gisa eskatzen den urtetik aurrera) enpresa pribatuko edo sektore publikoko erakundeetako lanpostu berdinetan edo antzekoetan, 12 puntu gehienez.

Merezimendu gisa baloratzen den lan-esperientzia parte hartzeko gutxieneko eskakizun gisa eskatzen denari gehituko zaio. Esperientzia zenbatuko da eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.

Esperientzia egiaztatzeko, prozesuan parte hartzeko eskaeraren eskabidearekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: lan-bizitza, CVa eta curriculum-memoria.

3. FASEA: GAITASUN PROFESIONALAREN ETA PROBA INFORMATIKOAREN IRIZPIDEAK (32 puntu gehienez)

Gaitasun-elkarriketaren gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Hautaketa-organoak elkarriketa eta proba praktiko bat egingo dizkie 2. fasean puntuaziorik onenak lortzen dituzten hautagaiei, gorabehera kritikoengatik alegatutako esperientziari buruzko datuak kontrastatzeko eta zabaltzeko xedearekin, lanpostuaren profilari buruzko gaitasunak aztertzeko.

Balorazioa:

- Elkarriketan gaitasun hauek baloratuko dira: bezeroarenganako orientazioa, komunikazioa, talde-lana, plangintza eta antolaketa, **puntuazio** honen arabera:
 - Lau gaitasunek balio bera izango dute, eta 1etik 5era bitarteko eskalan ebaluatuko dira. Puntuazio txikiena 1 puntu izango da, eta handiena 5 puntu.
 - Beraz, kontuan izanda 4 gaitasun daudela eta horietako bakoitzaren puntuaziorik handiena 5 puntu dela, guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioa 20 puntu izango litzateke.

Lehenik eta behin, gaitasun bakoitza banaka ebaluatuko da, zenbait galdera/adibiderekin. Izangaiak galdera/adibide horiei erantzun beharko die, ondoren gaitasun-eskalan ebaluatzeko, emandako erantzunaren arabera, eta aurkeztutako egitateetan oinarrituta.

Ondoren, gaitasun bakoitzean lortutako puntuen batura egingo da, eta emaitza guztizko 20 puntuen gainean baloratuko da. Proba honi esleitutako puntuazioaren % 50 gutxienez lortu beharko da gaingitu ahal izateko eta hurrengo proban sartu ahal izateko.

Balorazio-eskala: Gaitasunaren garapena

- **1 puntu: Oso oinarritzkoa.** Gaitasuna oso modu oinarritzkoan garatzen da, lana behar bezala egiteko trebetasunarekin, baina oso modu funtsezkoan.
- **2 puntu: Oinarritzkoa.** Gaitasuna oinarritzko moduan garatzen da, eta moldatzeko gai da, baina ahalegin handirik gabe.
- **3 puntu: Ertaina.** Gaitasuna modu neutralean garatzen da, etorkizuneko gertaerei aurrea hartzeko nolabaiteko trebetasunarekin.
- **4 puntu: Altua.** Gaitasuna ondo garatzen da, eta gertaeren aurrean nolabaiteko erraztasunarekin moldatzen da.
- **5 puntu: Oso altua.** Gaitasuna bikain garatzen da, eta gertaeren aurrean erraz moldatzeko eta balio erantsia emateko gai da.

Proba informatikoaren gehieneko puntuazioa: 12 puntu.

Aurreko faseen baturatik puntuaziorik handiena lortzen duten **10 pertsonak** proba praktikoa bat egin beharko dute. Proba horretan, gorabehera erantzutearekin lotutako ezagutzei buruzko hiru ariketa egingo dituzte. Proba hori elkarriketa egin eta berehala egingo da.

Ariketa bakoitzari gehienez lau (4) puntu emango zaizkio balorazio-eskala honen bidez:

- **1 puntu: Oso oinarritzkoa.** Gaitasuna oso modu oinarritzkoan garatzen da, lana behar bezala egiteko trebetasunarekin, baina oso modu funtsezkoan.
- **2 puntu: Oinarritzkoa.** Gaitasuna oinarritzko moduan garatzen da, eta moldatzeko gai da, baina ahalegin handirik gabe.
- **3 puntu: Ertaina.** Gaitasuna modu neutralean garatzen da, etorkizuneko gertaerei aurrea hartzeko nolabaiteko trebetasunarekin.
- **4 puntu: Altua.** Gaitasuna ondo garatzen da, eta gertaeren aurrean nolabaiteko erraztasunarekin moldatzen da.

Hainbat irizpide baloratuko dira, hala nola probaren irismena denboran, informazioaren argitasuna eta informazio garrantzitsua bereiztea.

Fase honi esleitutako puntuazioaren % 50 gutxienez lortu beharko da gaingitu ahal izateko eta hurrengo proban sartu ahal izateko.

4. FASEA: AMAIERAKO ELKARRIZKETA EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAN (geh. 30 puntu)

Aurreko faseetan puntuazio handiena lortu duten 3 hautagaiak banakako curriculum-elkarriketa batera igaroko dira. Elkarriketa horretan kasu praktikoa bat baloratuko da, eta balio, gaitasun eta

asmo pertsonalak egiaztatuko dira, hala nola lan-egonkortasuna, konpromisoa, errutina profesionalak, jarrera edo egokitzapena.

Gutxieneko atalase hau ezarri da: 20 puntu

8.2. Puntuazioen laburpena:

2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
38	32	30	100

BEDERATZIGARRENA. - HAUTAGAIA HAUTATZEA.

9.1. Hautaketa-prozesuaren faseak amaitu ondoren, fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta **guztizko puntuazio handiena** lortu duen izangaiaren kontratazio-proposamena egingo du hautaketa-organoak.

9.2. Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkariak % 40tik beherakoa den lanbide-profiletan, salbu eta gainerako hautagaietan neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak daudenean, sexuan oinarritutako bereizkeriarik egin gabe, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, berdinketa hausten duen lehentasun-hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

1. 3. eta 4. faseetan lortutako puntuazioaren batura.

2. 2. fasean lortutako puntuazioa.

3. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onartutako urteko ebazpenaren arabera (indarrean dagoena hurrenkera ezartzean), zeinaren bidez argitara ematen baita dagokion ikasturtean ordezkariak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan, bai eta ikasturtean zehar deitu daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere, ordena alfabetikoa zehazten duen letraren zozketaren emaitza.

Hautaketa-prozesuaren emaitza interesdunei jakinaraziko zaie, eta webgune hauetan argitaratuko da: <https://www.ciberseguridad.eus/> eta . www.qualisconsultores.es

HAMARGARRENA. - DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, hautaketa-prozesu honetako parte-hartzaileei jakinarazten zaie prozesuan parte hartzearen ondorioz emango dituzten datu pertsonalak

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK tratatuko dituela. Egoitza soziala: Albert Einstein kalea 46, PK 01510, Miñao (Araba). Telefonoa: 945 23 66 36. Helbide elektronikoa: dpd-dbo@cyberzaintza.eus

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAREN DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO LEGE-INFORMAZIOA	
Arduraduna	EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIA.
Xedea	Zure datu pertsonalak EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK tratatuko ditu, honako hauetarako: Hautaketa-prozesua egitea eta, hala badagokio, langileen eta EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAREN arteko lan-harremana kudeatzea.
Legitimazioa	Parte hartzeko eskabidea sinatzen duen pertsonaren baimena.
Hartzaileak	Ez dira lagako.
Eskubideak	Eskubidea duzu zure baimena edozein unetan bertan behera uzteko, eta zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezabatzeko, bai eta zure datuen tratamenduaren aurka egiteko nahiz tratamendua mugatzeko eta eramateko eskatzeko eskubidea ere, arduradunari zuzendutako idazki baten bidez, tratamendu zehatza eta erabili nahi duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen tratamenduari buruzko desadostasunik egonez gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo dezakezu (www.aepd.es).

Tratamenduaren arduraduna Qualis Consultores izango da:

QUALIS CONSULTORES-EN DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO LEGE-INFORMAZIOA	
Arduraduna	QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL
Xedea	Zure datu pertsonalak EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAK tratatuko ditu, honako hauetarako: Hautaketa-prozesua egitea eta, hala badagokio, langileen eta EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAREN arteko lan-harremana kudeatzea.
Legitimazioa	Parte hartzeko eskabidea sinatzen duen pertsonaren baimena.
Hartzaileak	Ez dira lagako.
Eskubideak	Eskubidea duzu zure baimena edozein unetan bertan behera uzteko, eta zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezabatzeko, bai eta zure datuen tratamenduaren aurka egiteko nahiz tratamendua mugatzeko eta eramateko eskatzeko eskubidea ere, arduradunari zuzendutako idazki baten bidez, tratamendu zehatza eta erabili nahi duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen tratamenduari buruzko desadostasunik egonez gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo dezakezu (www.aepd.es).



I. ERANSKINA

HAUTAPROBETAN ONARTUA IZATEKO ESKABIDEA		
"Gorabehereri erantzuteko arloko arduraduna"		
DATU PERTSONALAK		
IZENA		
ABIZENAK		
NANA/PASAPORTEA		
JAIOTEGUNA ETA JAIOTERRIA		
NAZIONALITATEA		
HELBIDEA		
HELBIDE ELEKTRONIKOA (ezinbestekoa)		
TELEFONOA		
GIDABAIMENA	☐ Bai	Klasea:
PROZESUKO HIZKUNTZA	☐ Euskara	☐ Gaztelania
Aitortuta al daukazu desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaera (% 33 edo handiagoa)?		
☐ Bai ☐ Ez		
Behar izanez gero, adierazi eskatzen den egokitzaipena:		

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA
☐ NANaren edo dokumentu baliokidearen kopia.
☐ Gidabaimenaren kopia.
☐ Curriculum Vitae.
☐ Lan-bizitza eguneratua.
☐ Curriculum-memoria.
☐ % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzen duen txartela, hala badagokio.
☐ Titulu akademikoen kopia.
☐ Euskararen ziurtagiria/titulua.
☐ Ingelesaren ziurtagiria/titulua.
☐ Beste ziurtagiri/titulu batzuk.

Behean sinatzen duenak eskabide honetan aipatzen diren hautaketa-probetan onartua izateko ESKATZEN DU, eta ADIERAZTEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan adierazitako eskakizun guztiak betetzen dituela, zeinak erantsitako dokumentazioaren bidez egiaztatzen baititu.

Era berean, behean sinatzen duenak adierazten du, hurrengo paragrafoko laukitxoak markatuz, EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAri baimena ematen diola bere datuak tratatzeko (eranskin honetakoak eta lanpostu-deialdi honi lotutako beste eranskin batzuetakoak):

- ☐ Bai, baimena ematen dut EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAk nire datu pertsonalak tratatzeko.
- ☐ Bai, baimena ematen dut QUALIS CONSULTORES SLk nire datuak tratatzeko
- ☐ Bai, baimena ematen dut QUALIS CONSULTORES SLk nire datuak tratatzeko EUSKAL ZIBERSEGURTASUN-AGENTZIAtik kanpoko beste hautaketa-prozesu batzuetan.

.....(e)n , 2025ekoren(e)(a)n.



Sinatua: